

MANTEROLA'tax GABIREL (JAIO ZANETIK 100 URTE)

EZAGUTU NEBAN

Naikoa lenagotik ezagutzen neban nik Gabirel Manterola, baiña 1970'ean Zeanuri bere erríra joan nintzanean beragaz artu-emon gozoak eta zintzoak izateko aukerea ízan neban. Gauza pozgarria ízan zan nítzat, baí bizítzan eta bai eriotzan bere adiskide izatea. Gogoan daukadaz batez be bere azkenengo illeak eta egunak eta bere azkenengo jaunartzeak.

Ni bertara joan nítzan ezkeror, Gabirel zar-sarí-dun zan eta bere eleizlana autor-lekukoa ta goizeko mezea esatea izaten zan. Azkenerantza neu ízaten nakion laguntzaille mezea esateko be.

Baiña ez uste izan zar-sari orregaz gure Gabirel geldi egoten zanik. Ez. Ibillaldi labur batzuk egiteko astía ateraten eban, baiña Gabírel' en orduak eta egunak liburu artean írakurten eta batez be ídazten ízaten zíran. Liburu-artean egoanean, lagun-artean egoan.

ZELAKOA ZAN

Ontasunez beteríko gizona eta oso baiezkorra zan.

Bakoítzak daukagu geure izaerea, berezkoa eta geure eziketa-alegiñaz lortu dogun lakoa. Eta Gabirel'ek be berea eukan: Ontasunez beterikoa, aingeruak lakoa ta txarkeri bakoa, laguntzaillea, ondasun-zalekeri-bakoa, arteza, errízalea, bear ba'da Jaungoiko-zalea zalako, eta abadea. Oraíntsu irakurri al izan doguz Etxebarria'tar Jon Gotzon'ek argitaratzen dauan EXCERPTA aldízkarian Gabirel'ek In' glattera'tik ídatzitako eskutitz batzuk, benetan abertzaletasun jatorra daríoen idazkiak.

Eungarren urtea

Il onen amazzpian beteten ebazan bere urteak Gabirel'ek eta bizi izan ba'litz aurten beteko eban eungarren urtea. Zar egín zan, baiña ez zan eldu bere adiskide dan Jos Migel Barandiaran lez, eungarren urtera. Orregaitik egiten jako omenaldía aurten bere errian, Zeanurí'n. Ona emen Egítarua ta zertzeldak:

EUSKERAZAIN'TZA/EUSKERAZALEAK

MANTEROLA ta URIGOITIA'tar Gabirel'eri OMENALDIA
(Jaíotzatik 100n.urtean)
Zeanurí'ko udalaren laguntzaz.

EGITARAUA

11'tan: Mezea.

12'etan: Jakintza-ekiñaldía, Udaletxean:

- Manterola'tar Gabirel bere sendian (Manterola'tar Ander'ek).
- Manterola'tar Gabirel idazlea (Onaíndia'tar Santí aítak).
- Manterola'tar Gabírel Eíbar'en (Zelaia'tar Pedro'k).
- Manterola'tar Gabirel umeakaz erbestean (Belaustegigoitia'tar Maitena'k).

13'etan: Dantza-Taldearen ekiñaldia.

13,30'ean: Manterola'tar Gabírel'en etxean oroi-ikurra ipintea.

14'etan: Erri-giroko bazkaria Zulaibar Lan-Ikastegian.

(Bazkarira joan naí dabenak martiaren 10'a baíño lenago txartela artu bearko dabe Zeanuri'ko Udaletxean edo Sagarna jatetxean. Ordaíntzekoa 2.500 pezeta ízango da. Omenaldian bertsolarien eta txistulerien ekiñaldiak ízango díra.

EUSKERAZALEAK/EUSKERAZAIN'TZA

OLAZAR'tar MARTIN'ek